Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO

SAKELAKO TELEFONOEN ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK TOKIKO HERRI JABARIAREN BAKARREKO ERABILERA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIKO TASA

# TASA POR UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PUBLICO LOCAL DE LAS EMPRESAS EXPLOTADORAS DE SERVICIOS DE TELEFONIA MOVIL

## 1. ARTIKULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauak aurreikusitakoaren arabera, Udal honek, sakelako telefonoen zerbitzuak ustiatzen edo ematen dituzten enpresek udal herri bideen lurzoru, zorupe edo hegalduraren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa ezarri eta eskatu du.

## 2. ARTIKULUA. ZERGA EGITATEA.

Tasa honen zerga egitatea sakelako telefonoen zerbitzuak ustiatzen edo ematen dituzten enpresek udal herri bideen lurzoru, zorupe edo hegalduraren aprobetxamendu berezia edo bakarreko erabilera egitea da, baldin eta erabilera edo aprobetxamendu horrek auzokoei orokorrean edo zati handi batean eragiten badie.

Ordenantza honetan araututako tasa, zerbitzuen sareak sartzeko bereziki eskainitako edo gaitutako azpiegituren erabilera udalak lagatzearen ondorioz unean-unean edo aldizka sor daitezkeen beste zenbateko edota tarifekin bateratu ahal da.

## 3. ARTIKULUA. ZERGAPEKOAK.

Ordenantza Honek araututako tasaren zergapekoak dira sakelako telefonoen zerbitzuak ustiatzen edo ematen dituzten enpresak, baldin eta auzokoei orokorrean edo zati handi batean eragiten badiete

## ARTÍCULO 1. DISPOSICIONES GENERALES.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 9/2005, Reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, establece y exige tasa por utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo de las vías pblicas municipales, en favor de empresas explotadoras o prestadoras de servicios de telefonía móvil.

## ARTÍCULO 2. HECHO IMPONIBLE.

Constituye el hecho imponible de la tasa la utilización privativa genérica o el aprovechamiento especial constituido en el vuelo, el suelo y el subsuelo de las vías públicas municipales, a favor de empresas explotadoras o prestadoras de servicios de telefonía móvil que afecten a la generalidad o a una parte importante del vecindario.

La tasa regulada en esta Ordenanza es compatible con las cuantías y/o tarifas que, con carácter puntual o periódico, puedan devengarse como consecuencia de la cesión de uso de infraestructuras específicamente destinadas o habilitadas por el Ayuntamiento para alojar redes de servicios.

## ARTÍCULO 3. OBLIGADOS TRIBUTARIOS.

Son obligados tributarios de la tasa regulada por esta Ordenanza las empresas explotadoras o prestadoras de servicios de telefonía móvil que afecten a la generalidad o a una parte importante del vecindario.

Beren izaera dela-eta herri-bideen zorupe, zoru eta hegalduraren aprobetxamenduaren mendean dauden edo aprobetxamendu horrekin zerikusia daukaten zerbitzu guztiak udal mugartean ematen direla joko da, zenbatekoa beste udalerri batean ordaintzen bada ere.

Se consideran prestados dentro del término municipal todos los servicios que, por su naturaleza, dependan del aprovechamiento del vuelo, el suelo o el subsuelo de la vía pública o estén en relación con él, aunque el importe se pague en otro municipio.

**4. ARTIKULUA. ERANTZULEAK.**

1.- Zordun nagusiaren zerga-betebeharren erantzule solidario izango dira Zergen Foru Arau Orokorraren 41. artikuluak aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak.

2.- Erantzule subsidiarioak izango dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluan ageri diren pertsonak edo erakundeak, artikulu horrek adierazi dituen balizko kasuetan eta hedadurarekin.

**ARTÍCULO 4. RESPONSABLES.**

1.- Responderán solidariamente de las obligaciones tributarias del deudor principal las personas físicas y jurídicas a que se refiere el articulo 41 de la Norma Foral General Tributaria.

2.- Serán responsables subsidiarios las personas o entidades a que se refiere el artículo 42 de la Norma Foral General Tributaria, en los supuestos y con el alcance que señala dicho artículo.

**5. ARTIKULUA. ZENBATEKOA.**

Sakelako telefonoen zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresentzat, zerga kuota honela kalkulatuko da: sakelako telefonoen zerbitzuak ematen dituen enpresako bezeroen artean Leioako udal mugartean helbidea daukatenen kopurua biderkatuko da Estatu osoan sakelako telefoniako eragiketengatik bezero bakoitzeko batez beste lortzen diren diru-sarreren %1,5rekin.

Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren ondoreetarako, sakelako telefoniako eragiketengatik bezero bakoitzeko batez beste lortzen diren diru-sarrerak honela kalkulatzen dira: komunikazio mugikorren operadoreen eragiketengatik Estatu osoan lortzen diren diru-sarrera osoen kopurua zatikatuko dira Estatu osoko komunikazio mugikor horien guztizko bezeroen kopuruarekin, Telekomunikazioen Merkatuko Batzordearen txostenak ekitaldi bakoitzeko ematen dituen datuen arabera.

Hau da, kalkuluaren formula honako hau izango da:

**ARTÍCULO 5. CUANTÍA.**

Para las empresas explotadoras de servicios de telefonía móvil, la cuota tributaria es el resultado multiplicar el número de clientes que tengan su domicilio en el término municipal de Leioa correspondientes a la empresa prestadora de servicios de telefonía móvil, por el 1,5 por 100 de los ingresos medios por cliente por operaciones de telefonía móvil en todo el Estado.

A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, son ingresos medios por cliente por operaciones de telefonía móvil, los resultantes de dividir la cifra de ingresos totales en todo el Estado por operaciones de los operadores de comunicaciones móviles, entre el número de clientes totales en todo el Estado de las mencionadas comunicaciones móviles, según los datos que ofrece para cada ejercicio el Informe de la Comisión de Mercado de las Telecomunicaciones.

Es decir, la fórmula de cálculo será la siguiente:

**QT** = Enpresak udalerrian dauzkan bezeroen kopurua x (% 1,5 x IMO)

Azalpena:

**QT** = Zerga kuota.

Enpresak udalerrian dauzkan bezeroen kopuruaren barnean daude sakelako telefonoen zerbitzuak ustiatzen dituen enpresaren bezeroen artean helbidea udalerrian daukatenak, hala aurre-ordainketakoak nola kontratukoak.

**IMO** = sakelako telefoniako eragiketengatik bezero bakoitzeko batez beste lortzen den diru-sarrera, honela kalkulatuta: komunikazio mugikorren operadoreen eragiketengatik Estatu osoan lortzen diren diru-sarrera osoen kopurua Estatu osoko komunikazio mugikor horien bezeroen guztizko kopuruarekin zatikatuta, Telekomunikazioen Merkatuko Batzordearen txostenak ekitaldi bakoitzeko ematen dituen datuen arabera.

**IMO** = IOm / Estatu osoko komunikazio mugikor horien guztizko bezeroen kopurua.

**IOm** = Komunikazio mugikorren operadoreen eragiketengatik Estatu osoan lortzen diren diru-sarrera osoen kopurua.

**6. ARTIKULUA. SORTZAPENA.**

Bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiten hasten denean sortuko da tasa.

**7. ARTIKULUA. AITORPENA ETA ORDAINKETA.**

Enpresa ustiatzaileek, urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen, aurreko ekitaldiari dagokion autolikidazioa aurkeztu beharko dute Udalean.

Autolikidazioa aurkezteaz batera enpresa horiek sartu behar duten zenbatekoa honela kalkulatuko da: Zerga kuotari zergadunak

**QT** = Núm. Clientes de la empresa en el municipio x (1,5% x IMO)

Siendo:

**QT** = Cuota Tributaría.

El número de Clientes de la empresa en el Municipio incluye a los clientes, pre-pago y contrato, de la empresa explotadora de servicios de telefonía móvil con domicilio en el municipio.

**IMO** = ingreso medio por cliente de servicios de comunicaciones móviles, resultante de dividir la cifra de ingresos totales en todo el Estado por operaciones de los operadores de comunicaciones móviles, entre el número de clientes totales en todo el Estado de las mencionadas comunicaciones móviles, según los datos que ofrece para cada ejercicio el Informe de la Comisión de Mercado de las Telecomunicaciones.

**IMO** = IOm / número de clientes totales en todo el Estado de comunicaciones móviles.

**IOm** = Ingresos totales en todo Estado por operaciones de los operadores de comunicaciones móviles.

**ARTÍCULO 6. DEVENGO.**

El devengo de la tasa se producirá cuando se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial.

**ARTÍCULO 7. DECLARACIÓN E INGRESO.**

Las empresas explotadoras deberán presentar en el Ayuntamiento, antes del 30 de abril de cada año, autoliquidación correspondiente al ejercicio inmediatamente anterior.

La cantidad a ingresar, de forma simultánea a la presentación de la autoliquidación, por dichas empresas, será el resultado de

dena delako ekitaldian egindako konturako ordainketen zenbatekoa kendu.

minorar la cuota tributaría en el importe de los pagos a cuenta realizados por el contribuyente en el ejercicio a que se refiera.

Egindako konturako ordainketak tasaren kuotaren zenbatekoa baino handiagoak badira, gehiegizko zenbatekoa konpentsatu egingo da autolikidazioa aurkeztu eta gero egin behar den konturako lehenengo ordainketan.

En el supuesto en que los pagos a cuenta realizados excedan de la cuantía de la cuota de la tasa, el importe del exceso se compensará en el primer pago a cuenta que corresponda efectuar tras la presentación de la autoliquidación.

**8. ARTIKULUA. KONTURAKO ORDAINKETAK.**

**ARTÍCULO 8. PAGOS A CUENTA.**

Komunikazio mugikorren zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, tasaren zergadunak izanik, hiru hilean behin Udalean autolikidazioa egin behar dute; horrekin batera, tasaren konturako ordainketa gisa, Ordenantza honetako 5. artikuluan ezartzen den formula aplikatzearen ondoriozko kopuruaren laurdena sartu behar dute, Telekomunikazioen Merkatuko Batzordearen txostenak argitaratutako urteko azken txosteneko datuen arabera.

Las empresas explotadoras de servicios de comunicaciones móviles contribuyentes por la tasa deberán autoliquidar cada trimestre en el Ayuntamiento e ingresar simultáneamente con la autoliquidación, en concepto de pago a cuenta de la tasa, la cuarta parte de cantidad que resulte de aplicar la formula establecida en el artículo 5 de esta Ordenanza, según los datos del último informe anual publicado por la Comisión del Mercado de la Telecomunicaciones.

Autolikidazioa eta konturako ordainketen sarrera, hiruhilekoa amaitu eta geroko hilabetearen azken hamar egunetan egingo dira.

La autoliquidación e ingreso de los pagos a cuenta se realizará en los diez últimos días del mes siguiente a la finalización de cada trimestre.

**9. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.**

**ARTÍCULO 9. INFRACCIONES Y SANCIONES.**

Zergen arloko arau-hausteei, horien kalifikazioei eta dagozkien zehapenei dagokienez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Zerga Ordenantza Nagusian xedatuta dagoena aplikatuko da.

En todo lo referido a infracciones tributarias y sus distintas calificaciones, así como las sanciones que a las mismas correspondan, se aplicará lo dispuesto en la Norma Foral General Tributaria y en la Ordenanza Fiscal General.

BAO. 247.zk. 2006. abenduak 29

BOB núm 247. 29 de diciembre de 2006